

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Jendaurrean jartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren aldeko doako lagapena, hain zuzen, udalaren 7126 zenbakiko lurzatiarena, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko alokairuan S. R.-1 sektorean

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Eltziegoko Udalaren artean S. R.-1 sektorean babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan sustatzeko izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren bigarren klausula (2019ko maiatzaren 6ko 83. zenbakiko EHAAn argitaratu zen hitzarmena) betetzeko.

Udalak, 2019ko maiatzaren 17ko osoko bilkuran, erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari ondoan azaltzen den lurzatiaren doako lagapena egitea:

Eltziegoko 7126 zenbakiko finka. Hauxe deskribapena:

«Hirikoa: ondoriozko lurzattia lau-bat zenbakia. Poligono irregularreko itxura duen orubea, Foru Aldundiaren kalean, zortziehun eta berrogeita bat metro koadrokoa, gehieneko okupazioa: bostehun eta hirurogeita lau metro eta bost dezimetro koadro, eraikigarritasuna: sotoa + 2. Azalera eraikigarria: mila bostehun eta hirurogeita bi metro eta hamahiru dezimetro koadro, guztira. Mugakideak: iparraldean, ondoriozko lurzattia 3 dotazio zona eta SR-1 SUS. R7ren ipar muga; hegoaldean, ondoriozko lurzattia bideak; ekialdean, SR-1 SUS. R-7ren ekialdeko muga; eta mendebaldean, ondoriozko lurzattia 8. Erreferentzia katastroa: 22-8-655-1-1». Guardiako jabetza erregistroan inskribatuta: 1180 alea, 69 liburua, 35. orria, 2009ko ekainaren 26ko 1. inskripzioa.

Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 110. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki hau jendaurrean jartzen da hamabost egunez udaletxe honetako iragarki taulan eta ALHAOn, egoki irizten diren alegazioak aurkez daitezten.

Eltziego, 2019ko maiatzaren 28a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE